

TXORIAK ASKATZEAN

Izar Azpiroz Irigorri, 16 urte

Oiartzun

Zenbait ezpaineek marraztutako arrosak
larrezko zelaietan dama,
koloretako haziak hegan dihardute zeruetan
txori,
kantari.

Hegoak zabaldu eta hegan
haizea ebakiz, dantzan,
arrosa koloreko zintak eskuan hartuta
ametsekin hizketan.
Zentzurik gabeko soinuak abesten dituzten ahoak,
melodia irrealakin larrua jotzen duten erritmoak,
dantzan dihardute,
gela zurietako gortina urdinen atzean,
zeruan hegan diharduten ustetan.

Erritmo erritmiko errealei omen eginez,
ahoek hitz egiten dute
maitasunaren hizkuntza isilean hizketan,
sentimenduei muzin egin barik.
Eta zelaiak mugagabe bihurtzen diren
gorputz nahasteetan,

zenbait txorik hegaldia hasten dute,
itzalez jantzitako kobazuloetan barrena,
gau zuloaren erregina den saguzarraren bila.

Hegoak zabaldu eta hegan
haizea ebakiz, dantzan,
arrosa koloreko zintak eskuan hartuta
ametsekin hizketan.

Gose dira bost hanketan dabiltzan katamotzak
eta sentimendu pizgarrien berotasunari kasu eginez,
larruzko lautadak arakatzen dituzte,
umeltasunez eta goxotasunez,
zelaietako belarrak ferekatuz.
Bost hanketako bi katamotz,
buztan posesiboei kasu eginez,
umeltasunez ferekatuz.

Umelak, urreztatutako begiradak,
urrez janzten duten islak.
Mugatasunaren sinbiosi dira,
gozamenaren bide,
urreztatutako begiradak,
posesiboki jaten nauten
uhin bero eta tropikalak.
Bora-Borako ur epeletan
mila dimentsiotako arraiekin dantzan,
ametsen gidari dira
ezpain gorrietan hazten diren desioak.

Barraskilo beltzetan lardaskatutako hatzak
zeru urdinetan hegan diharduten txorien ikusmira.
Larruak larrua besarkatzen duenean

hatzen estuasuna soila da,
estasiaren zeinua.

Eta altxor galduaren bila diharduten bitartean,
zenbait sentimendu bizikorrekin dantzan,
haizezko erreinuaren blokeak jausten doaz,
gozotasunaren antidotoak
zenbait melodia irreal kantarazten dute
zeru urdinean hegan diharduten txoriak.
Eta are eta bloke gehiago erortzen dira,
gozamenaren segundoak azpian harrapatu nahian,
txoriak beren habiara sartzen diren heinean.